

Tajuzko soldata ala mixerizkoa?

Soldatak gutxienez 138 pezetako izan behar duala erabaki zuan Gobernuak joan dan Martxoaren 18'an.

Garrantzi aundiko joan-etorria dugu behar-beharreko soldata kontu a bizi geran ekonomiarakunde ontan, asko bait dira soldatatik bizi diranak. Eta jakina oso erraz gerta ditezke lan-gileak behar-beharrekorik gabe, dirudunen indarra eta diru-gosea ikusirik.

Ori gerta ez dedin artu ohi du neurri a Gobernuak. Gizon bakoitzak, gizon-taneran bizitzeko, itxuraz estali behar ditu giza-premi beharrekotak. Premi oiek estaltzeko aibat irabazi behar du gutxienez gizon bakoitzak. Ortarako aña irabazten duanean bakarrik ematen zain tajuzko soldata. Bestela ozta-ozta, mixerian, bizi dedin nolalako mixerizko lan-sari bat besterik etzaio eskeintzen.

Baia ona emen gure galdera larria: Irixten ahal zaio behar-beharreko premi oiek estaltzeko aibat Estaduak orain izendatutako lan-sari orrekini?

Igo egin da lehendik onera "gutxieneko" soldata ori. Baia ez ahal zaizkio gehiago igo egunero erosi behar dituan gauzak? Sarritan ikusi ohi ditugu telebistan saltzaille eta erosleeri galdezka: "Zuri zer iruditzen zaizu, asko garestitu dirala erosi behar diran gauzak?". "Ez, ba", erantzun ohi dute an agertzen diranak. Baia baitz diote gure sukaldetako etxeokandreek. Etxeokandreek. "Ez dala giro dendara sartzen". "Asko garestitu dirala gauzak".

Egia diote nonbait. Bestela bigratu gure langilleeri. Europan beste ifnongo errialdeetan ez bezala an eta emen ordu sartzen dabiltz familia aurra geiegikerik gabe ateratzeko.

Izan ere nola erantzun etxe-bizitza artutakoan egindako zorreri edo ileroko etxe-errentari eta jateko, jatzeko eta umeak eskolatzeko behar dutenei?

Eta ez doaz gutxitzen gizonen beharrak. Diru-pillaketaren atetik dabillen gizaratek berak sortzen digu premi berri oien egaria. Nola aberastu bestela egiten dituan tresna eta gauzak denda eta azoketan salmenta onik ez badute?

"Ondo bizitzeko beharrekotak dituzu a eta ura", otsegingo zaigu propagandaren bidez. Eta onela geitzen da gudan etengabe ezin-bizia eta larria eskeintzen dizkiguten erosotasunen bidez. Oiek eskuratzeko diru-neurri estua eskeintzen bait zaigu.

Beraz gizonak behar dituan premi oiek ugariatu badira eta erosteko orduan garestitu bazaizkio estaltzen ahal dituzte zortzi orduko soldata orrekini?

Eta gaixo-aldia edo zartzarora edo lanik-eza datorkionean nola moldatu behar du soldata orren orrenbesteko bat besterik jasotzen ez badu?

Orregatik galdetzen dugu berriro: tajuzko soldata ahal da ala mixerizkoa izendatutako ori?

KEZKAK

BASERRI - AZTERKETA

Gaztañaga'k

Betor zorionean, betor azkar Lekuona'tar Andoni'k aditzera eman-berria duan baserri-azterketa ori!

Bi eratako jardunak ezagutzen ditugu eta bietatik asko. Batetik, gure baserriaren gorantzak: eskualtasunaren iturri dala, euskeraren gordailu dala... e.a. Ori uktu gabe, baiña aitoratu bear egin oien inguruan beste bitxikerizko itz aiez-tusugari esan dirala.

Bestetik, berriz, baserriaren egoera guziz illun eta beltz margotzen duten jardun negartiak ere ugari entzun izan ditugu eta irakurri. Askotokotan, ordea, itzezko zarata utsak.

—oOo—

Eta orra oraingoan Lekuona'ren asmoak, ez irripat eta ez negar-malko, jator bezain egoki baserri-ri begira. Berriketarik eta txantxari gabeko asmoak dirala iruditzen zaiz.

Neke aundirik gabe ta aixta ikusten dugu baserriaren egoera garrra. Ez da, ordea, ain erraza zeifnen larria dan neurtzen. Askoz zaillagoa, berriz, egoera latz eta illun orren sustraiak ongi ezagutzea.

Are-ta-are zaillagoa, noski, ondamedizko egoera ori goizko behera eta bekoz gora eragitea, illun dagona argitzeko eta larri dagona lasaitzeko.

—oOo—

Gaitzik sendatuko balin badu, bere sustraiak eta iturburuak ezagutu bear ditu sendagileak. Ori egin ezik, gañerako guzia ezer gutxitaroko luke: gaixorik dagonari sendatu-este apurren bat pizteko, geienaz ere.

Gisa berean, baserriaren ondo-eza sendatuko balin badute, su-traietara jo bear aurrena. Eta bide orrian barrena dioja "Baserri-azterketa".

Gañiera, ez da baserri baten

egoera. Baserri-sendi batek eman dezaioke erantzuna bere egoerari: onela edo ala antolatuz, naiz-ta danak utzirik kalera joanaz.

Baiñan ori ez da gure baserrien egoera konpontzea. Baserri guziak daude kinka larrian. Millaka baserri-ritar dira beren etorkizuna nekazaritzi lotuta daukatena.

Orregatik, taldean artuta, baserri guziak batean bilduta, Gizpua-koak nekazaritza edo nekazalago osoari bigratu bear diote. Ori da egitekoa, ori da garrantziko, ori da Zabalegi'koen asmoa.

—oOo—

Baserria zabalerko ortan artzen dalarik, gauza txit bearezkoza da, gaitzaren sustrai-billa egin nai duen azterketa ori. Txalogarria benetan eta aspaldi eginda bear genduna.

Ba dakite, noski, Lekuona'k eta bere lagunak; ba dakite baserri-tarrek ere, azterketak ez dituala berez eta beste gabe oker guziak zuzenduko, ezta zulo guziak beteko ere.

Gutxienez ere, ordea, gaurko egoeraren alderdi illunak sakonki ikusieraziko ditu. Askori begiak ideki-erazteko bidea izango da. Azterketa orrek, jakina, gain-axaleko eta gutxi gora-beerako irudi apañik ez du emango.

Bearrak eta ezñiak zaazki nabarmenduko ditu, zalantzarik ez uzteko eran nabarmenduko ere. Eta orrek berak erabakitsiko die baserri-tarrieri —besterik ez balitz ere!— nondik barrena ez duten jo bear, zertan ez duten gelditu bear, nondik nora joztek baldakiduen dien leize-zuloa, e.a. Eta ez da gutxi.

Konponketaren asiera, noski. Amildegian beera jarraitu bearean. "esti" egiteko egokiera emango die.

—oOo—

Baserriaren etorkizunerako itxa-

Euskal BA DATOZ GUTARRAK!

Lehenik bijoakuzie oroi ene agur sutsua, ene begiramen ta itzal osoa, Euskal Herriko ama guziet.

Memento garrantz hoetan; hodei ilun-traketsez beteriko ortzai azpiko emakumeok izanen duzue betekizun ta zereginiak aski.

Bazerate. Direla bizpahiru hilabete-ko hauzi latzak intzirika utzi arazi-zaituztenak.

Indar ta ausartiaren neurkin on...

Euskal ama sentitzen denak aha-leginik egin behar du beste emakumeek euskal arazoak beregana ditzan. Euskal arnasan igeri egin dezaten. Hau lortuz gero, haur orok jakintza gertukerian bere ahal-menak euskal giroan zabaldu ta aberastu ditzan.

Inoloz zaien ardugi illuragarriek gartzeletako burni-hesien aurrez-aurre dituztelarik beroa ta maitasuna eskaini behar diezue. Baita erbasteen atzerrian, bakardade hotzean murgilduta. Zorigaitzean arkitzen direnek kontsola ere.

Lan nekeza...! Lan zaila...! Erantzukizunezko betekuherra...!

Izan baduzue jaungoikoarekiko zerbait zuen maitasun neurtugaitza dela medio ta aingeruzko iduri handia etengabeko kezkatze ta ardura bikainagaitik.

Gasze izanik amona zaharrenen zuhurtasun preziazgarria hornituak izanen zaituztegu ta adintsu zeratenok aldiz gataroan bezanbait leiatsu dardarduzue inoiz ongi ordainduko ez zaizuen lan isil-nekutsuan.

Ezjakin zeratenok bizitzaren sustrai ezkutu ta sekretuak jakintsu beneragarrienak bezain ziurki somatarra heltzen zerate ta eskolatuko haurren jolas ta txikiak xinxpleekin bat egiten badakizue.

Inguruan biziki maite dituenekin alaitzen zaiku ama behartsua. Aberratsak prestuki emanen lituzke bere bitxikeria ta txanpon oro bihotz-barne muinean gorrotoaren zauri mingotsa ez dasta ta jasatearren.

Amarik kementsuena berriz haurren karaxi kokorrenak erruz samintzen ta dardaritzen du. Ahula izanik berriz mai leholaren pizkortasun ta indarrakin jantzita ikusten dugu.

Ekaitz aldiatan ta eguneroko lan zital ta pixuan ez pentsa zuen animoak deusik balio ez dutenik.

Zer egia handia den ama bizi den bitartean ez dugula asmatzen nahikoa estimatzen bere ondoan min guziak hazten bait dira.

Batez ere ama gasteongoan dagoela uste dut gure Euskal Herriaren geroaren giltzarria. Ormolamendi

ropena pizten duan argi-izpia iruditzen zaiz "baserri-azterketa" au. Argi-izpia, itxaropena, asiera, esantzia.

Bein ontara ezker, bai garrantzi aundikoa dala, erantzun egiaz eta leialki emate! Zenbat-eta zuzenago, jurtzago eman, aibat-eta obo damentat.

Aitor dezagun, ez gaudela egia erantzuten oituta. Ia-ia ñfor ez, taldean artu-ta beintzat. Beste giza-taldeeri baiño are zaillago gertuko zaie, berriz, baserri-tarrieri, nekazarieri.

—oOo—

Dei bat egingo nieke, bada, baserri-tarrieri. Uste osoa izan dezatela Lekuona'ren eta bere laguntzailleen asmoetan. Piatu ditzezla, arren, "Baserri-azterketa" orren eratzailleekin, ez bait dipoz azpikeriz, ez dipoz diru-billa.

Ez gaitzik eta ez okerrik begiak itxteak zuzentzen ez duan antzera, baserriaren egoera dan bezala-bezalaxe ez ikusteak, edo-ta ikus nai ez izateak ere ez die ezer onik ekarriko.

Beste zenbait arazotan iñork uste baiño askoz elkartuago eta gizonkiago jokatu duten baserri-tarrek, nik uste, maila bereko jator-tasunaz erantzun dutela ontan ere.

Itxaropen izugarria piztu di "Baserri-azterketa" onek. Gaurtik zai-zaiz gelditzen naiz, egunen batean zorionak aobetean eman bear-ko dizkiedan uste osoz zorabiatu-rik eta amesetan.

Gaztañaga'k

Erdi txantxetan erdi zinez, oihu hori entzun ohi zen gure artean. Gaur ez da entzuten, nik uste. Baina zegokion izpiritu-jarrera eta da gure artean hil; aitzitik, bizi-bizirik dirauela esango nuke.

"Ba datoz gutarrak". Alegia: gu hemen gaude begira, geure bizier-ria normala patxara egiten, geure buruak nahaspilik ongi babestu-rik; eta ba datoz horiek, gure arao-zez arduratzen diren "gutar" horiek beraz (kanpotik etorri behar-ralde, bestalde); eta, kanpo urrun miteriozko horietatik heldu, gure gaitzak sendatzera datoz.

Erdibiketa ezin larriago honi zeharo amai ematea ezina izanik ere, gutziz etsi beharrik ez dago, eta ikuskera kaltegarri horren erroak ahalen erazuten sailatu behar dugu. Katalanek erazuzi dituzten bezala.

Ze "gutarrak" geu gara: zu eta biok, eta "gutarrak" ere zuk eta nik biok ongi ezagutzen ditugun lanikide hauek eta haiek: Urllia, andia eta Berendia hain zuzen. Honela esan behar litzake, beraz: "Ba Gatoz Gutarrak", geure burua, etorriko den mordo horren barnean emanez. Ez bait datoz inolako kanpoaldetik gauzari "buelta" emango diotenak. Eta hau esate hutsa ez litzake aski izango: sinetsi ere egin behar dugu, horrela bait da egia. Geu bait gara "gutar-rak" egiazki.

Nola gatzoz, ordea?

Orain dela urte batzutako esae-ran, Aingeru Suntsizallearen eran-edo zetozean gutarrak, Guruzade-ko osteak Jerusalem-a bezalatsu: jende pilo bat sartuko, antza, ez-patak hortzetan eta sua dariaela, dagoena eta ez dagoena behingoa ankar gora botatzera, eta dena iraultzera eta berri-berri jasotzera. Gauza nabarmena denez ametas huz gertatzen da hori gure herrian aspaldi honetan; eta ez gure he-ria-ri bakarrik. Horrelako ganbia-mentu gaitzak ez dira inun obra-ten.

Gu geu garen gutarrok, beraz, ez gara horretara etorriko.

Frutua ez da bapatean heltzen; negute luzearen ondoren, loratzea dator; eta gero, poliki-poliki zortu-ta, frutua. Horrela ori da Natu-raleza. Lanaren isila! Prestaketaren apala! Etsenpluaren bikaina!

Gauza bera gutar famatu horiek. Uztak ez dira egun batetik biha-ramunera gertatzen. Ez da egia. Uza ederrak isilean eta egunero ekinez lortzen dira. Ez datoz gu-tarrak korpez, beraz; bai-iz-eta he-men ori gara lanean gutarrok, eta ongi ezagutzen dugu elkar: ezari-ze-arian ori direnak dituzu, eten gabe, trikatu ere gabe, gaut-a-egun, jai-ta-aste, lan-da-lan, gin-kin-zun atsekabe, ilun eta ohorega-beretan osotara murgildurik unatzen direnak dituzu. Hortxe dituzu gutar-rak. Ez bestetan bila. Utz ditza-gun ametsak!



Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA
 Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
 Donostian: Okendo, 22 Tel. 42.66.66
ARPIDE SARIA:
 Barruan 250 pezeta
 Korreo batasunetako errietan 300 pezeta
 Atzerrietako bes-terrietan 320 pezeta
 Aidez Aurrez gal-detu
 Salmetan (ale bakoitza) 6 pezeta

Nekazariengandik hartu behar genduke jarraipidea. Nekazariak egunero egiten du lan, eta egune-ro arduratzen da uda-ondarean bil-du nahi lukean uztaz. Ez dago lo, kanpotik norbaitek edo zerbaitek uzta presta dizaian zai. Lan neketsua du egun guziaz eta egun gu-ziez. Baina ba daki ere ez duela besterik uzta-biderik. Areago daki: artarik ezaz eta turboiaren gogo-rrarengatik, kara ona zekuan uzta eder bat hona daitekeala. Neka-zaria, horretara, artaga eta kezka-tsu gerta daiteke, uzta gal bildu-rraz. Zernahi gerta ere beti lasai dagoen nekazariak ez dago.

Zergatik ez horrelakorik gure ar-tean? Hona erantzuna: "ba datoz gutarrak" hori barne-muinean sar-turik daramagulako. Alegia: uzta-ri-buruz, apokaliptarien ideia gutzaz arras jabetu delako.

Zalantzarik gabé eguraldiak ba-du bere eragina uztean: ardosat-tatzaileek dakite hau ongienik. Bai-na mahatsondoak egunero behar dira zaindu eta bigratu eta ba-nan banan. Txingurriaren lan lan-tsua da, lan emankor diren beste guziak bezala.

Eta hementxe dago kakoa, nik uste: apokalipti askatzaile horren aldekoek ez dute lanik egin nahi, eta apokaliptarien etorrera hurbil-ak ematen die behar zuten aitzia-kia. Bestek langetzia nahi dute ho-riek, bestek burruka egitea, eta bestek arazoak konpontzea. Bizki-tartearen lasai egin beren etxeetan eta beren xokoetan, beren nahiku-nde zikoitzet, beren xede izkutu kaskarrei eta... beren berriketa kanpurus harropuztei eusten diz-kietelarik.

Farisaueria hori, eta oinarritzat duen alferkeria, salatu beharra dago.

Eguneroko lan itsusi nekagarri umilean heltzen da uzta. Egune-ro lan horretan parte hartzen ez duenak, gero txolartean noizpait etorriko omen diren gutar horietaz zernahi esanaiztik, ez da gu-tarra, farisaua guzirik.

Geroa gaur hozitzen da, eta gaur hazten eta moldatzen. Eguraldiak lagundu egin dezake; baina uzta ez dakar ez guziak ez gehogai-zeak, nekazariaren beraren lanak baizik.

Zure ekintza-postua eta ene ekin-tza-postua, irakurle hori, hortxe daude, gure ondoan: laguntzarik ezaz koloka edo gaitzez dagoen eginkizun beharrezko horretan, di-ru-faltan makaltzen den beste har-tan, lan aspergarri eta luze bat nor-ekin lezeak ezin asmaturik aspaldi honetan alde batera utzita dagoen sailean, arrisku txiki bat izan dezakean betebetar ditziraga-be horretan, herriko edo lantegi-ko arazoak zuzentzeko sortu zen batzorde abandonatu horretan, ikasi nahi duten gasteantzoa mon-tatu den asteroko ikastaldi horretan, eta abar, eta abar, eta mila aldiz abar. Zehazkiago azaldu be-harrik ez dago, ezen lan apal ho-rietakoak ez bait dira beti eskein-tzaz mukurru...

Lan isil apal horietek dira hain zuzen bihi emankorra eta gure go-roaren giltzarria.

"Jopu-lanak" omen...

Baina "jopu-lan" mesprextatu horiek egin nahi ez duten horiet-ek ez "jopu-lanik" ez dute egin ohi. Euskeraz ikastea eta hitzegi-tea omen da "jopu-lanik" ezagune-na, gutxietsia, arbiutuia, eta... ge-rorako utzia! Hori gero, "E" gero dirdaitsu bibliko hartan...

"Jopu-lanik" ez, hobe beharrez... eta azkenean, hutsa!

Eta alegiazko "gutar" bikain ho-riek etorri zai hilko dira.

Larresoro